EIBARKO UDALA

**"ETA KITTO...!" EUSKARA ELKARTEARI, URKIZU PASEALEKUKO 11N LOKALA ERABILTZEN UZTEA.**

Eibarko herrian, 2014ko urriaren 27an, Eibarko udaleko Alkatetzaren bulegoan, ondokoak bildu dira:

Alde batetik, Miguel de los Toyos jauna, Eibarko udaleko alkate-udalburua; udalaren izenean eta udala ordezkatzen.

Bestetik, Juan Barahona Prol jauna, NAN: [redacted], "eta kitto!" Euskara Elkartearen izenean eta hura ordezkatzen diharduena elkarteburua den aldetik, Elkartearen Idazkariak, Maider Aranberri Sarasua andreak, 2014-03-20ko Batzar Nagusian hartutako erabakiaren inguruan luzatutako Ziurtagiriak egiaztatzen duen bezala.

Bertan da baita Udal Idazkari Nagusia, Arantzazu Echaniz Petralanda andrea, egintzari fede ematen.

Bildutakoek hauxe adierazi dute:

... eta kitto! Euskara Elkarteak, 2014-4-29an, Urkizu pasealekuko 11n dagoen lokala erabiltzeko zuen hamar urteko lagapen hura berriztatzeko eskaera egin

**CESIÓN DE USO DE LOCAL EN CALLE URKIZU, 11 A "...ETA KITTO" EUSKARA ELKARTEA.**

En la Ciudad de Eibar el día 27 de octubre de 2014, en el despacho de la Alcaldía del Ayuntamiento de Eibar se reúnen:

Don Miguel de los Toyos, Alcalde - Presidente del Ayuntamiento de Eibar y en nombre y representación del mismo.

Don Juan Barahona Prol, con DNI [redacted], en nombre y representación de la Eta Kitto Euskara Elkartea en su condición de Presidente según se acredita en Certificación expedida por la Secretaria de la Asociación, Maider Aranberri Sarasua, de acuerdo adoptado en la Junta General de 20 de marzo de 2014.

Asiste asímismo la Secretaria del Ayuntamiento, Doña Arantzazu Echániz Petralanda, que da fe del acto.

Manifiestan las partes que:

- Con fecha 29-4-2014, la Asociación ...eta kitto! Euskara Elkartea solicitó la renovación de la cesión de uso que disponía por diez años del local sito en



EIBARKO UDALA Ayuntamiento de Eibar Untzaga plaza, 1 • 20600 EIBAR Gipuzkoa • Tfl. 943 70 84 00 Faxa 943 70 84 20 • e-mail: pegora@eibar.net • www.eibar.net

zuen.

Urkizu número 11.

Aldez aurretik bete beharreko tramitazioa eginda, 2014-5-26ko udal osoko bilkurak, lokal hori beste hamar urtez ...eta kitto! Euskara Elkarteari erabiltzen lagatzeko erabakia hartu zuen. Espedientea eta erabaki hura jendaurrean utzi ziren alegazioetarako.

Previa la tramitación oportuna, el Pleno Municipal de fecha 26-5-2014 aprobó la cesión de uso de dicho local por diez años a ...eta kitto! Euskara Elkartea, sometiendo el expediente y acuerdo a información pública para alegaciones.

Inork ez du alegaziorik aurkeztu alegazioak egiteko zegoen epe horretan, beraz, lokala erabiltzen lagatzeko akordio edo erabaki hura irmo bilakatu da.

En el referido plazo de alegaciones no se ha presentado ninguna, por lo que el acuerdo de cesión ha devenido definitivo.

Lagapen dokumentu hau formalizatu dute ondoko baldintza hauek aintzat hartuta:

Formalizan el presente documento de cesión con arreglo a las siguientes condiciones:

AURRENA: Eibarko Udalak, "...eta kitto!" Elkarteari erabiltzen uzten dio Urkizu pasealekuaren 11n dagoen lokalaren 13. zati pribatiboa, errektangelu itxurakoa eta 310 metro koadro dituena.

PRIMERA: Es objeto de cesión de uso por parte del Ayuntamiento de Eibar a la Asociación Eta Kitto, el local que hace la parte privativa número 13 del número 11 de Paseo de Urkizu de forma rectangular y de 310 metros cuadrados.

BIGARRENA: Erabilera-lagapena hamar urterako izango da 2014ko urriaren 27tik zenbatzen hasita; beraz 2024ko urriaren 27an amaituko da.

SEGUNDA: La cesión de uso será por diez años a partir del 27 de octubre de 2014, por lo que finaliza el 27 de octubre de 2024.

HIRUGARRENA: Erabilera-lagapen hau doakoa da.

TERCERA: La cesión de uso es con carácter gratuito.

LAUGARRENA: Erabilera- eta lagapen-baldintzak Lokalak Erabiltzen Lagatzeko Udal Ordenantzak jasotzen dituenak dira (2012-01-30eko Udalbatzaren erabakiz onartu zena, 2012-05-04ko GAOn 71. zenbakidunean argitaratua); eta, bereziki, 6tik 10era bitarteko artikuluek eta 14. artikuluek diotena.

CUARTA: Las condiciones de uso y cesión son las recogidas en la Ordenanza Municipal Reguladora de cesión y uso de locales, aprobada por acuerdo de Pleno de 30-01-2012 (B.O.G. nº 71 de 4-5-2012) y en especial artículos 6 a 10 y 14.

Eta adostasunaren seinale, honetan esku hartu duten parte biek dokumentu honen ale bi izenpetu dituzte eta, eranskin gisa, Lokalak erabiltzen lagatzeko Udal Ordenantza horren kopia ere bai goian esandako lekuan eta bertan azaltzen den egun horretan.

Y en prueba y conformidad firman las partes intervinientes por duplicado el presente documento y, como anexo, una copia de la referida Ordenanza municipal Reguladora de cesión y uso de locales, en el lugar y fecha arriba indicadas.

Eibarren, 2014ko urriaren 27an

Eibar, a 27 de octubre de 2014



EIBARKO UDALA Ayuntamiento de Eibar Untzaga plaza, 1 • 20600 EIBAR Gipuzkoa • Tfl. 943 70 84 00 Faxa 943 70 84 20 • e-mail: pegora@eibar.net • www.eibar.net